



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

2018ko ekainaren 28n Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta sei korporakide bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

**1.- 2018ko maiatzaren 31ko udal batzarreko aktaren onarpena hurrengo bilerarako uztea.**

**2.- Urgentziazko mozioa.**

EHBilduren eskaera:

- 1.- Manex Odriozola Goikoetxea eta beste gazteen berehalako askatasuna eskatzen du Udal honek
  - 2.- Espainiako indar okupatzaileak Euskal Herritik kanporatzea exigitzea.
  - 3.- Udal honek Manexen egoeraren jarraipen zuzena egingo du
  - 4.- Hartutako erabakia jakinaraztea herritar guztiei."
- Zestoan, 2018ko ekainaren 28an"

Ondoren Bertaratutako zazpi korporakideren aho bateko adostasunarekin ontzat eman da mozioa.

**3.- Arroako biribilunearen lur-zesioa.**

Hamaika zinegotzietatik bertaratutako zazpi zinegotzien aho bateko aldeko botoarekin ondorengo erabakiak hartu ditu:

Lehena.- Arroabeen N-634 eta GI-631 errepideen artean biribilgunea egiteko helburuarekin, Zestoako Udalaren jabetzakoa den 1.448,35 m<sup>2</sup>ko lursaila (8. eranskinean ageri den 3.lursaila) Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

Bigarrena.- Erabakia jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendari Nagusiari.

**4.- 2017ko Kontu Orokorra eta Inbentarioa**

Bertaratutako hamar korporakideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- 2017ko Zestoako Udalaren Kontu Orokorra eta Inbentarioa onartzea.



ZESTOAKO UDALA

Bigarrena.- 2016ko Zestoako Udalaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegira igortzea.

**5.- Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza.**

Bertaratutako zazpi zinegotzien aho bateko aldeko botoarekin ondorengo erabakiak hartu ditu:

Lehena.- Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza hasiera batez onartzea.

Bigarrena.- Ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan jendurrean jartzea 30 lanegunetan zehar, sor daitezkeen zuzenketa edo erreklamazioak egin ahal izateko.

Hirugarrena.- Hartutako erabakia, behin betikoak izango dira beste akordio baten beharrik gabe, jendurreko legezko epea iragan ondoren inolako zuzenketa edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

**6.- Erregu eta galderak.-** Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

IDAZKARIA,

O.e.  
ALKATEAK,